



Datuen Babeserako Politika eta Tratamendu Jardueren
Erregistroa

Datuak Babesteko Politika eta Tratamendu Jardueren Erregistroa

Datuak babesteko politika honen bidez, **Gizarte Urgazpenerako Foru Erakunde**an (aurrerantzean, GUFÉ) gure zerbitzuak erabiltzen dituzten edo harremanetan jartzen diren pertsonen datu pertsonalen erabilerari aplikatzen zaion informazio guztia zehazten da.

Horrezaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari atxikitako zuzenbide publikoko erakunde autonomoa garenez, eta 2016/679 (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) EB Erregelamenduaren 30. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 31. artikuluan xedatutakoa betez, jarraian gure tratamendu-jardueren erregistroa argitaratzen dugu, non datu pertsonalen tratamendu bakoitzari buruzko informazio zehatza aurkitu ahal izango duzun.

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Zure datuen tratamenduaren arduraduna Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea da, izaera administratiboko Foru Erakunde Autonomoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Araubide Ekonomikoari buruzko urriaren 14ko 10/1997 Foru Arauaren 4.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera eratua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari atxikia.

Gure helburua da Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak agintzen dizkigun pertsona guztiei arreta osoa eta pertsonalizatua ematea, eta, bereziki, premiarik konplexuenak dituzten pertsonen. Horretarako, kalitatezko zerbitzu eta baliabide sozial espezializatuak eskaintzen eta bermatzen ditugu, erabiltzaileei eta haien familiei bizitza duina izaten laguntzen dietenak, beren eskubideak baliatzeko eta beren ahalmenak garatzeko ingurune egokia babestuz.

2. Nor da Datuen Babesaren ordezkaria?

Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burutzak betetzen ditu Datuen Babesaren ordezkariaren eginkizunak eta kargua, eta zuzenean dago atxikita Modernizazio, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Kabineteari. Gobernu Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 15eko Erabakiaren bidez onartu zen Bizkaiko Foru Aldundiko eta sektore publikoko Foru Erakundeetako datuak babesteko ordezkariaren figura sortu, izendatu eta arautzea. Izendapen hori argitaratu eman zen 2018ko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (99. zk.) eta ofizialki jakinarazi zitzaion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (DBEB).

Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idatzi Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera, posta-helbide honetara: Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo.

3. Zeintzuk dira datuak ematean dagozkizun eskubideak?

Datuen babesari buruzko araudiak zenbait eskubide ematen dizkie interesdunei beren datu pertsonalei dagokienez, berehala aditzera emango dizugunez. Eskubide horiek zuzenean balia daitezke, edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez, eta dohainik.

Zure eskubideak baliatzeko, jar zaitez harremanetan GUFÉ erakundearekin, idatzizko jakinarazpen bat bidaliz helbide honetara, NANaren edo identifikazio-agiri analogo baten fotokopiaz lagundurik:

Ugasko 5 - Bis 1

48014 Bilbo, Bizkaia

Zure eskaera jaso ondoren, ebazpen bat emango dugu. Ebazpenarekin ados ez bazaude, alde zurreko erreklamazioa egin ahal izango duzu datuak babesteko ordezkariaren aurrean (Bizkaia Foru Aldundiaren Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala: Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo), eta hark bere ebazpena izapidetuko du GUFÉ erakundearen barruan, edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (www.avpd.euskadi.eus).

Datuen titularrek honako eskubide hauek dituzte:

- **Sartzeko eskubidea:** datu pertsonalak tratatzen diren jakiteko eta tratamendu horri buruzko informazio osoa ezagutzeko eskubidea. Konparazio batera: datu pertsonalak, kategoriak, helburuak, hartzaileak, kontserbazio-epea, jatorria, transferentziak eta komunikazioak.
- **Zuzentzeko eskubidea:** zehatzak ez diren datu pertsonalak zuzentzeko eta falta diren datuak osatzeko ahalmena ematen du.
- **Ezerezteko eskubidea:** datu pertsonalak ezabatzeko ahalmena ematen du kasu hauetan:
 - Datuak legez kontra tratatu badira.
 - Tratamendua edo bilketa eragin zuen helburua desagertu bada.
 - Adostasuna ezeztatu bada (adostasuna datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa denean bakarrik).
 - Tratamenduari aurka egin bazaio.
- **Aurka egiteko eskubidea:** zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal diozu, baldin eta botere publikoen erabilera edo tratamenduen arduradunaren interes legitimoa bada haren legitimazio-oinarria.
- **Mugatzeko eskubidea:** datu pertsonalen tratamendua mugatzea, bi aldaeratan: datuen tratamendua etetea eta datuak kontserbatzea:
 - Tratamendua etetea eskatzen da:
 - Datu pertsonalen zehaztasuna aurkaratzen denean, zehaztasuna egiaztatzeke epearen barruan.
 - Tratamenduari aurka egiten zaionean, arrazoi pertsonalak azalduta, aldi berean egiaztatzen delarik arduradunak interes publikoaren edo botere publikoaren izenean burututako eginkizun batean legitimatuta tratatzen dituela zure datuak, eta zehazten denean arduradunaren tratamendu hori gailentzen dela.
 - Datuak gordetzeko eskatzen da:
 - Tratamendua legez kontrakoa denean eta erabilera mugatzea eskatzen denean, eta ez ezereztea.

- Pertsonen erreklamazioak egiteko edo defendatzeko datuak behar dituztenean, baina aldi berean arduradunak jadanik behar ez dituenen datu horiek tratamenduaren helburuetarako.
- **Erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izateko eskubidea:** eskubide honek bermatzen du zure gainean ez dela erabakirik hartuko datu pertsonalen tratamendu hutsean oinarrituta (profilak egitea barne), baldin eta tratamenduak ondorio juridikoak baditu pertsonarengan. Hala ere, eskubidea ez da aplikatzen kasu hauetan:
 - Erabakia beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo betearazteko.
 - Tratamendua adostasunak legitimatuta badago.

4. Zein kasutan komunikatuko ditugu zure datuak?

Ez dizkiegu zure datuak hirugarrenei komunikatuko, zuri alde aurretik jakinarazi gabe eta behar den legitimazio-oinarria eduki gabe.

Batzuetan, zerbitzu jakin batzuk ematen dizkiguten enpresak kontratatzen ditugu, eta, horretarako, gure ardurapeko datu pertsonalak tratatu behar izaten dituzte. Enpresa horiekin tratamendu-eragileen kontratuak sinatu ditugu, DBEOren eta DBEDBLOren xedapenak betetzen dituztenak. Kontratuon bidez ziurtatzen dugu enpresa horiek kontratatutako zerbitzua emateko soilik tratatzen dituztela erabilgarri dituzten datuak, ez dituztela inoiz erabiltzen baimendu ez dizkiegun helburuetarako eta ez dizkietela datu horiek hirugarren enpresa eta/edo administrazioei lagako. Gainera, eskatzen diegu segurtasun-neurriak ezar ditzatela datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Era berean, kontratatuko baditugu, enpresa eta erakundeek bermatu behar digute indarrean dauden datuen babesari buruzko xedapenak betetzen dituztela.

Kasu bakoitzean jakinaraziko dizugunez, egoera jakin batzuetan, datuak administrazio publikoei lagatzeko legezko betebeharra dugu.

Kontrakoa adierazi ezean, ez dugu datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

5. Zer segurtasun-neurri aplikatzen ditugu datuen tratamenduan?

Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren (Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena) II. eranskinean aurreikusitakoekin (segurtasun-neurriak).

Jarraian, GUFÉ erakundearen egiten dugun tratamendu-jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatza jasotzen dugu:

1. Hautaketa-prozesuak

1.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen langileak hautatzeko egiten ditugun prozesuak kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

1.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

1.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- LHL;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa lan zuzenbidearen eta gizarte segurantzaren eta babesaren esparruan betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea da (DBEO 9.2.b.).

1.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola eskuratu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak hautaketa-prozesuan parte hartzen duten pertsonak edo haien ordezkariak (legezkoak edo boluntarioak) emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak;
- Akademikoak eta profesionalak;
- Enpleguaren xehetasunak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna, sindikatu-afiliazioa.

1.5. Zein hartzaileari komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- GUFÉ erakundeko iragarki-taulei eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialari, hautaketa-prozesuei Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eskatzen duen publizitatea emateko.

2. Laguntza-zentroak

2.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen laguntza-zentroak kudeatzeko (diru-sarrerak, egonaldia eta zerbitzuaren prestazioa eta bajak) eta erabiltzaileei arreta emateko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

2.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

2.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarrria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- LHL;
- Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa;
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena;
- 3/2005 Euskal Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko;
- 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzen duena.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa lan zuzenbidearen eta gizarte segurantzaren eta babesaren esparruan betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea da (DBEO 9.2.b.).

2.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak gizarte-zerbitzuek, interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak, adinekoek, adingabeek edo desgaitasuna duten pertsonak eta beste administrazio publiko batzuek emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak;
- Akademikoak eta profesionalak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Bankukoak eta ondare ekonomikoak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna;
- Kondena eta arau-hauste penalei buruzkoak;
- Administrazioako arau-haustek.

2.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Farmaziei;
- Osakidetza;
- Gizarte Segurantzari;
- Beste administrazio publiko batzuei: Gizarte Ekintza Saila (BFA);
- Probintzietako diputazioei;
- Lanbideri;
- SEPEri;
- Justizia Administrazioari;
- Eusko Jaurlaritzari eta arlo horretan eskumena duten administrazioei.

3. Azterketa medikoa

3.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean lan egiten duten langileen kontrol medikoa kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

3.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

3.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa lan zuzenbidearen eta gizarte segurantzaren eta babesaren esparruan betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea da (DBEO 9.2.b.).

3.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak enplegatu publikoek, mutualitateek edo gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta interesdunak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguaren xehetasunak.

3.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

4. Langileak

4.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

GUFE erakundeko langileekin lotutako kudeaketak egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak. Zehazki, ordutegi-kontrola, prestakuntza, pentsio-planak, laneko arriskuen prebentzioa, diziplina-arabidea, nominak egin eta ematea eta jarduera sindikalaren kudeaketa egiteko.

4.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

4.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena;
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa;
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Kategoria bereziko datuak tratatzeko legitimazioa lan zuzenbidearen eta gizarte segurantzaren eta babesaren esparruan betebeharrak betetzea eta eskubide espezifikoak baliatzea da (DBEO 9.2.b.).

4.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak enplegatu publikoek emandakoak dira. Zerrenda propioetan hautagairik ez badago, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta/edo beste administrazio publiko batzuen zerrendetako datuak eskuratzen ditugu.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak;
- Akademikoak eta profesionalak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak;
- Enpleguaren xehetasunak;

- Bankukoak eta ondare ekonomikoak;
- Transakzioen datuak;
- Datuen kategoria bereziak: osasuna, sindikatu-afiliazioa;
- Kondena eta arau-hauste penalei buruzkoak;
- Administrazio arau-haustek.

4.5. Zein hartzailei komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Gizarte Segurantzari;
- SEPEri eta Lanbideri;
- Finantza- eta aurrezki-erakundeei;
- IVAP-HAEEri;
- Foru Ogasunari;
- Mutualitateei eta gizarte-aurreikuspeneko erakundeei;
- Sindikatuei;
- Elkarkidetzari.

5. Hornitzaileak

5.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen hornitzaileekin lotutako kudeaketak egiteko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

5.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

5.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

5.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunak berak eta/edo haren legezko ordezkariak eta enplegatu publikoek emandakoak dira.

Identifikazio- eta harreman-datuak baino ez ditugu tratatzen.

5.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

6. Bideozaintza eta sarbideen kontrola

6.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna bermatzeko, bai eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen laguntza-zentroetarako sarbideak kontrolatzeko ere tratatzen ditugu zure datu pertsonalak.

6.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Bideozaintzarako bildutako datuak hilabeteko epean gordeko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren 22.3 artikulua araberako.

6.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko (DBEO 6.1.e) tratatzen ditugu, Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legea dela eta.

6.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak erabiltzaileek, enplegatu publikoek, herritarrek eta egoiliarrek emandakoak dira.

Identifikazio- eta harreman-datuak baino ez ditugu tratatzen.

6.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Ez da datu-komunikaziorik egiten.

7. Kexak, iradokizunak, erreklamazioak eta kontsultak

7.1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

GUFE erakundearen jarduerari buruz aurkeztutako iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta kontsultak erregistratzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko tratatzen ditugu zure datu pertsonalak, 39/2015 eta 40/2015 Legeetan aurreikusitakoaren araberako, eta Estatuko Administrazio Orokorrean kalitatea hobetzeko esparru orokorra ezartzen duen ekainaren 29ko 951/2005 Errege Dekretuak garatuta.

7.2. Zenbat denboraz gordeko ditugu datuak?

Datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

7.3. Zein da datuak tratatzeko legitimazio-oinarria?

Zure datu pertsonalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde autonomoa garen aldetik, aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko (DBEO 6.1.c) tratatzen ditugu.

Hona datuen tratamendua legitimatzen duten legeak:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena;
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

7.4. Zer datu tratatzen ditugu eta nola lortu ditugu?

Tratatzen ditugun datuak interesdunak berak eta/edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira.

Datu-kategoria hauek tratatzen ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak;
- Inguruabar sozialak eta pertsonalak.

7.5. Zein hartzaileri komunikatuko dizkiogu zure datuak?

Jarraian adierazten ditugun datuen komunikazioak lehen aipatutako legeetako legezko betebeharrak betetzeko legitimazioa dute.

Zehazki, honako hauei egiten dizkiegu datuen komunikazioak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Foru Sailari.